

**Mendi Zerbitzua
Nekazaritza Saila
Arabako Foru Aldundia**

**HERRI ERABILERA KO MENDIETATIK MOTORDUNAK EZ DIREN KIROL FROGAK
IGAROTZEKO ONESPENA**

..... Andrek/Jaunak,
.....-ko Erakunde (Administrazio
Batzar/Udal/Komunitate/bestelakoa)lez.

.....-ren eskaera
jasota,-ren ordezkari bezala, Entitate honen Herri
Erabilerako Mendietatik igarotzeko Kirol Frogako
.....-(a)ren-(e)an.

Jasotako dokumentazio kartografikoa ikusita, froga Entitate honen jabetzako honako Herri Erabilerako
Mendietatik igarotzen dela egiaztatu ahal izan
da:
(HEM-aren zenbakia eta izendapena).

Mendiei buruzko 11/2007 Foru Araua, Martxoaren 26koa kontuan hartuta, beronen “Herri erabilerako mendien
edo mendi demanialen erabilera” deritzon III. Kapituluko 23. artikuluan “Erabilera bereziak” adierazten den
bezala:

*“Erabilera orokorren artean beren-beregi aipatu ez den eta, aldi berean, beste batzuek mendia
erabiltzea baztertzen ez duen beste edozein ohiko erabilera ohiko erabilera berezizat hartuko da, eta
mendi demanialen kasuan, erakunde titularren/titularren baimena ez ezik, mendien arloan eskumena
daukan Foru Aldundiaren Sailaren baimena ere beharko ditu. Hala eta guztiz ere, aurretik aldeko
txostena egin beharko da, eta bertan aurreikusi den erabilera berezia mendiaren herri erabilerako
eginkizunekin bateragarria dela, mendiaren izaera fisikoa aldatzen ez duela eta iraunkorra ez dela edo
iraupena Toki Araubideari buruzko legedian gehienez ezartzen dena baino laburragoa dela justifikatu
beharko da.”*

Ondorioz, NIRE ONESPENA EMATEN DUT

.....-i, kirol frogaren
antolatzailea, berau Entitate honen jabetzako Herri Erabilerako Mendietatik igaro dadin, AFAko Mendi
Zerbitzuak ezarritako baldintzatzaile orokorren eta Entitate honek zehazki ezarritakoak betez, honi atxikitzen
zaion Eranskinaren arabera.

.....-en,ko-(a)ren-an

(Zigilua eta sinadura)

..... Andre/Jauna
.....lez.

ERANSKINA

MENDI ZERBITZUAK EZARRITAKO HERRI ERABILERAKO MENDIETATIK IGAROTZEN DIREN MOTORDUNAK EZ DIREN KIROL FROGEI DAGOKIEN BALDINTZA OROKORRAK

- 1.- Frogaren antolatzaileak dagozkion hirugarrenen erantzunkizun zibil aseguruak izan beharko ditu, baita mota honetako kirol frogak ospatzeko beharrezkaok diren beste lege eta segurtasun betekizun guztiak ere.
- 2.- Frogaren antolatzaileak kirol froga igaroko den Herri Erabilerako Mendien edo Jabari Publikoko mendien jabe diren Entitateen baimena eduki beharko du eta hauek ezarritako baldintzak bete.
- 3.- Baliza, seinale, defentsa edo beste edonolako instalazio mugikorren erabilera aldi baterakoa izango da eta zuhaitzak kaltetu gabe egin beharko da. Ez da onartzen iltze edo graparik zuhaitzetan sartzea, seinalaketarako pintura erabiltzea debekatuta dago era berean. Lasterketara hurbiltzen diren ikusleentzat aparkalekurik balego, hauek non dauden adierazi beharko da.
- 4.- Kirol frogaren antolakuntzak erabilitako bide eta eraginen bat izan duten mendi eremuak frogaren aurretik zuen egoeran uztearen ardura izango du. Antolkuntzari dagokio sortutako hondakinak jasotzea eta seinaleztapenerako erabilitako elementu guztiak kentzea kirol frogaren ostean.
- 5.- Kirol froga igarotzearekin batera ganaduarentzako langak itxita gelditzen direla egiaztatzeko nahikoa jende izan beharko da.
- 6.- Dagoeneko badauden bide eta pistak bakarrik erabili ahal izango dira, beraietatik kanpora joatea debekatuta dagoelarik. Espresuki debekatuta dago txirrindu eta motordun ibilgailuen zirkulazioa eta aparkatzea ezarritako bideetatik kanpora eta bideek kalte garrantzitsurik edo egitura eta osotasun aldaketarik eragingo ez zaiela bermatuko duten baldintza egonkorretan ibili beharko da. Eguraldi baldintza txarretan froga bertan-behera utzi ahal izango da une baterako edo guztiz (euritea, behelainoa, ekaitza, urez gainezka egindako lurra, etab.).
- 7.- Ibilbidera mendi bide mugatuetatik sartzen diren motordun ibilgailuen kontrol zorrotza izango da, larrialdietarako, babes zibil eta mendi zaintza eta babeserako zuzendutako ibilgailuak bakarrik baimenduz (10/2010 Foru Dekretua, martxoaren 9koa, 3.1. Artikulua). Era berean, antolakuntzak eskatutako ibilgailuak baimenduko dira:

Ibilgailu mota	Matrikula

- 8.- Frogen sustatzaileek Mendi Zerbitzuak egoki deritzon zehaztapenetan eragin ditzakeen kalteengatik mendien jabe diren Entitateen aurrean ardurak hartu beharko dituzte.
- 9.- Baimen hau Arabako Lurralde Historikoaren barnean kokatzen diren Herri Erabilerako Mendiei bakarrik dagokie eta ez du salbuesten sektore arautegiak eska ditzakeen beste hainbat baimen eta lizentzietatik.
- 10.- Baimen hau eskatzen duen behar adina agintariri edo agintaritza agentera erakutsi beharko zaio.
- 11.- Ezarritako baldintza hauek ez betetzeak, emaniko baimenaren esparruaren mugetatik kanpora eginiko gehiegikeriak edo 11/2007 Foru Arauak ezarritakoaren aurka burututako edozein ekintza zigor espediente baten gai izan daiteke VI. Tituluaren edukiak dioenagatik.

JABE DEN ENTITATEAK ZEHAZKI EZARRITAKO BALDINTZAK: